Udalbatzarrak, 2022ko urriaren 25ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

**2022 AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA. INBERTSIOAK FINANTZATZEKO KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO 2022-KALD-3 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Inbertsio gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

| EGITASMOA | AURREKONT GUZTIRA proiektu+obra+ zuzend… | 2022 Aurrekontuan jasota | Gerakinean lehendik jasota | PARTIDA HANDITU BEHARRA |
|---|---|---|---|---|
| Sokadun parkea | 290.000 | 97.880 | 0 | 192.200 |
| Udal Areto Nagusia | 330.253 | 0 | 184.000 | 330.300 |
| Turismo-Merkataritza bulegoa | 365.481 | 70.000 | 0 | 295.500 |
| Mañe y Flaquer Plaza | 364.232 | 99.425 | 0 | 264.900 |
| Kale-Garbiketa Makina (barredora) | 550.000 | 150.000 | 0 | 400.000 |
| | | GUZTIRA GERAKINETIK HARTZEKO: | | **1.482.900** |

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2022-KALD-3 zenbakia duena, jarraian ageri den partidakako xehetasunarekin:

## KREDITU GEHIGARRIAK

| Partida | Azalpena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 1 09.609.04.231.03 2020 | HE-8-SOKADUN PARKEA | 192.200,00 |
| 1 02.622.03.152.20 2022 | UDAL ARETO NAGUSIA. BIRGAITZEA | 330.300,00 |
| 1 02.622.02.152.20 2020 | TURISMO ETA MERKATARITZA BULEGOA-BERRITZE LANAK | 295.500,00 |
| 1 05.601.02.153.30 2018 | URBANIZAZIOA.MAÑE-FLAQUER PLAZA | 264.900,00 |
| 1 02.623.01.162.10 2022 | MAKINARIA-BARREDORA. KALE-GARBIKETA ZERBITZUA | 400.000,00 |
| **GUZTIRA** | | **1.482.900,00** |

## FINANTZAKETA

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 870.01.000.00 2020 | GASTU OROKORRETAKO DIRUZAINTZA GERAKINA | 1.482.900,00 |
| **FINANTZAKETA GUZTIRA** | | | **1.482.900,00** |

Udal sailetako teknikariek txostena egin dute inbertsio gastuen beharra jusutifikatuz.

Kontu-hartzaileak egindako txostena egin du. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aurretik adierazitako guztia aintzat hartuta,

**Proposamena, Osoko Bilkurak AKORDIO HAU HARTZEA**

**Lehena.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2022-KALD-3 espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

## KREDITU GEHIGARRIAK

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 1.482.900,00 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **1.482.900,00** |

**FINANTZAKETA**

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 1.482.900,00 |
| **GUZTIRA** | | **1.482.900,00** |

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

**Hirugarrena.-** Aldaketaren ondorioz, Inbertsiotarako Funtsa honela dotatua geratzen da: 3.335.100 €

EGITASMOAK

Ave Maria eraikina
Zubipe-Landare kirol instalazioak. Uholdegarritasuna.
Martindegi euri-urak jasotzeko.
Panel fotovoltaikoak udal eraikinetan

2022ko aurrekontu likidazio onarpenarekin batera Funtsaren diru kopurua eta egitasmoen zerrenda berriro berrikusiko da.

Hernani, 2022ko urriaren 26an

Idazkaria

**KONTU-HARTZAILEAREN ZIURTAGIRIA**

**GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZA GERAKIN ERABILGARRIA ETA FINANTZAKETA LOTUA DUTE GASTUETARAKO DIRUZAINTZA GERAKINA**

Nik, Aitor Sarasola Salaberriak, Hernaniko Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, 2021eko aurrekontuaren likidazioa ikusita, eta 2022ko aurrekontuan orain arte egindako kreditu aldaketak aztertuta

**Ziurtatzen dut:**

1.- Gastu orokorretarako diruzaintza gerakin likido erabilgarria, finantzaketarako baliabide gisa erabil litekeena, 5.326.422,68 eurokoa dela, xehetasun honen arabera:

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina guztira | 24.822.365,39 |
| (-) Kobrantza zalantzagarriko saldoak | 1.229.573,84 |
| (-) Gehiegizko finantzaketa lotua | 2.028.373,67 |
| Gastu orokorretarako hasierako diruzaintzako gerakina | 21.564.417,88 |
| (-) Aurreko kreditu aldaketetan erabilitako diruzaintzako gerakina | 11.073.156,71 |
| (-) Kontingentzietarako erreserbatutako diruzaintzako gerakina | 5.672.437,16 |
| Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin erabilgarria | 4.818.824,01 |

2.- Finantzaketa lotua duen gastuetarako diruzaintza gerakin erabilgarria, finantzaketarako baliabide gisa erabil litekeena, 1.706.306,24 eurokoa dela, xehetasun honen arabera:

| | |
|---|---|
| Gehiegizko finantzaketa lotua, hasieran | 2.028.373,67 |
| (-) Gehiegizko finantzaketa lotua, erabilia | 322.067,43 |
| Gehiegizko finantzaketa lotua, erabilgarria | 1.706.306,24 |

Eta espedientean jasota gera dadin, honako ziurtagiri hau luzatzen dut.

Hernanin, 2022ko urriaren 5ean

AITOR SARASOLA SALABERRIA - 72441395C

Firmado digitalmente por AITOR SARASOLA SALABERRIA - 72441395C
Fecha: 2022.10.06 12:15:34 +02'00'

Aitor Sarasola Salaberria, Hernaniko Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikuluaren b) letran ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

**TXOSTENA**

Alkatearen proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, Alkatearen proposamenean espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako foru arauaren 34.3. artikuluaren arabera, kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena Udalbatzari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsoei buruzko tramiteak. Gainera, espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar zaio.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.

Hernani, 2022ko urriaren 5ean
Kontu-hartzailea

AITOR SARASOLA SALABERRIA - 72441395C

Firmado digitalmente por AITOR SARASOLA SALABERRIA - 72441395C
Fecha: 2022.10.06 12:17:39 +02'00'